



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko apirilaren 29an

29 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Gizarte Zerbitzuen alorreko hitzarmenei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak egina (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Alzheimer-ek ukitutako pertsonentzako Laguntza Orokorrei buruzko Plan bat bildal dezan, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak aurkeztua (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen alorreko kontzertuak arau ditzan, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak aurkeztua (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren jokaera gaitzesten da, zenbait sendagai Gizarte Segurantzatik kanpo uzteari buruzko erabakiak ez betetzeagatik. Izapidea Osoko Bilkuran egingo da (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Sendagaien fakturazioan aurreztegatik balizko sariak jaso ditzaketen medikuen zerrendari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (9. or.).

—Sendagaietan aurreztegatik emango omen diren sariak direla-eta, kontsulta mediku ratioetan sortu daitezkeen ondorioei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).

—Sendagai orokorrak errezetatzekotan, kasu horretarako aurreikusi diren zuzenketei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).

—Errezeta medikuen zenbatekoa jaitsi daitekeela erakusten duten ikerketa teknikoei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).

—Abelur jarduerako istripuei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).

—Atarrabiako etxebizitzaren urbanizazio bat eta igerilekugunea zeharkatzen duen goi-tentsioko hari elektrikoaren ibilbidearen zuzenketari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).

- Naturguneen sareari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- Nafarroako Unibertsitateari, Klinika Unibertsitarioari eta haien fundazioei, halakorik balitz, eman zaizkien laguntzei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreakegina (15. or.).
- Nafarroako hezeguneen inbentarioari eta haren eguneratzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- Gizakiaren jarduterik gabe kontserbatzeko diren oihan aldeei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Basa faun babesteko esparruei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- Ekologi sare komunitarioan sarturiko “Natura 2000” kontserbazio alde bereziei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Ehiza itxindegi eta hesiak kentzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- 1997ko ekaitzen ondoriei aurrei egiteko aztertu diren konponbideei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Bertizko kudeaketari buruz egindako jardunaldi teknikoen inguruko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
- Erreserba integral edo naturalak erabiltzeko eta kudeatzeko planei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- Natur-erreserba integralak eta naturguneak babesteko alderdiak seinalizatu eta mugarritzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- Aralarko parke naturalari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- Pirinioetako parke naturalari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).
- Belateko parke naturalari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).
- Erregerena parke naturalari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (24. or.).
- Bortzirietako Mendiguneko parke naturalari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).
- Leyre Mendiko parke naturalari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
- Illon Mendiko parke naturalari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
- Lokiz Mendiko parke naturalari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (27. or.).
- Codés Mendiko parke naturalari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (28. or.).
- Iruñeko zenbait auzotan D eredia ezartzeko dauden eskaerei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreakegina (29. or.).
- Elortz ibaiko ur beltzen isurketa sortu duen kolektoreari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (29. or.).
- Noingo Udaleko kontabilitate-informazioan sortutako arazoei buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina (30. or.).
- Uxueko Santa Maria monumentu-multzoan aurreikusi eta hitzartutako jarduketei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (31. or.).
- PFEZaren erreforma bat Nafarroan aplikatzeak izanen duen eragin ekonomikoari buruzko galdera, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak egina (32. or.).
- Iruñeko espetxean gertaturiko elikagaiengatik toxikapenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (33. or.).
- Aste Santuko trafikoaren zainketa, kontrol eta segurtasun lanei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (34. or.).

- Zenbait medikuntza-espezialitatetan itxaron-zerrendek izandako bilakaerari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (35. or.).
- “Etxebizitzak eskuratu eta sustatu” kontusailaren kargu jarduketa-lurzati bakoitzean eskuratutako metro karratuei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (36. or.).
- N-232 errepideko trafikoari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (36. or.).
- Tuterako UNEDeko zentroari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (37. or.).
- Reina Sofia Ospitaleko mantenimendu zerbitzuko langileen kontratuari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (38. or.).
- Lizarrako bidezaintzako etxebizitzetara buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egin (38. or.).

H SAILA:**Bestelako Testu Arau-emaileak:**

- Nafarroako Basoei buruzko Plana. Akats zuzenketa (39. or.).

B Saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Gizarte Zerbitzuen alorreko hitzarmenei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

«Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak Gizarte Zerbitzuen alorreko hitzarmenei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Gizarte Zerbitzuen alorreko hitzarmenei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Gizarte Zerbitzuen alorreko hitzarmenei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Kontuen Ganbarak Minusbaliatuen 1995eko Programan Nafarroako Foru Komunitateko oinarritzko arauari buruzko goitik beherako azterketa egin zuen, gizarte zerbitzuak ituntzeari dagokionean:

Martxoaren 30eko 14/83 Foru Legeak gizarte zerbitzuak arautzen ditu, zerbitzuen erantzukizun

publikoaren, berdintasunaren eta unibertsaltasunaren printzipioei jarraituz, bazterketarik egin gabe eta gizabanako eta gizarte talde guztiek plangintzan eta kontrolean parte hartuta.

– Aurreko legearen arabera, administrazio publikoen eskurantzaren zen elkarturiko eta lankidetzan aritzen diren zerbitzu-entitate eta erakundeekin itunak egitea; lege horrek ezarritakoa osatzeko, Gizarte Zerbitzuen arloko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea onetsi zen. Azken horrek baimena ematen zien administrazio publikoei irabazi asmorik gabeko entitate publiko zein pribatuekin, zentro edo zerbitzuetako titular direnekin, itunak sinatzeko, betiere ziurtatze sistema baten baldintzapean.

– Hala ere, 1988rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 12ko 3/88 Foru Legean muturreko aldaketa bat sartu zen, izan ere gizarte zerbitzuen prestazioa enpresa-jarduerara gisa ere onartu baitzen, alegia, irabazi asmoarekin lotuta.

– Beste aldetik Gizarte Zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/90 Foru Legeak ziurtatzearen kontzeptuaren ordean baimenaren kontzeptua jarri zuen, betiere zentro eta zerbitzu guztiei -itunpekoak izan ala ez- eskatuko zaizkien kalitatezko gutxieneko parametro batzuk berriz ezarritik.

– Geroago, itunei buruzko 20/85 Foru Legea garatzen duen martxoaren 23ko 120/92 Foru Dekretuak 1988ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak sarturiko aldaketa aintzat hartu eta gizarte-zerbitzuak enpresa-jarduerara gisa ematea onartu zuen. Horri jarraituz, zerbitzu publikoen kudeaketaren kontratazioari buruzko araua arau osagarria izanen zela deklaratu zuen. Azken buruan, itunen lege-diseinua instituzio horretara bideratu zuen.

Horrenbestez, badago zerbitzu horiek arautuko dituzten printzipioak zehazten dituen Gizarte Zer-

bitzuei buruzko Lege bat (14/83), hain zuzen ere Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak (1988koa) funtsean aldatu zuena. Hori dela eta, zentroak irabazi asmoko entitateekin ituntzeko bidea eman zen; horrek oso ondorio txarrak ekarriko zizkien administrazio publikoei eta laguntza jasotzen duten pertsoneri ere. Kalitatearen, kudeaketaren eraginkortasuna eta baliabideen arazoizkotasunaren bila joatearen aldeko argudioak porrot egin du.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da 1983ko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen hasierako izpiritua, izan ere zerbitzu horiek Gizarte Zerbitzuen arloko Itunei buruzko 1985eko Foru Legearen artikuluetan eta hura garatzen duten arauetan

islatu behar direnak; horrenbestez hona gure proposamena:

Artikulu bakarra.- Gizarte Zerbitzuen arloko Itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legearen 3. artikuluko 1.c) idaztia aldatu eta honelaxe idaztea:

“1.c) Zentro edo zerbitzu berekien edo administrazio publikoek sustaturikoen kudeaketa, entitate publikoekin edo/eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin.”

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Alzheimer-ek ukitutako pertsonentzako Laguntza Orokorrei buruzko Plan bat bildal dezan

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Alzheimer-ek ukitutako pertsonentzako Laguntza Orokorrei buruzko Plan bat bildal dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osasun Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejo, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko Osasun Bozeramaileak, Biltzarreko erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaida dadin:

lazko azaroan Iruñean egin zen Alzheimerri buruzko Biltzar Nazionala. Eritasun horrek jota 5.000 pertsona dago Nafarroan.

Alzheimerri pairatzen duten pertsonen kopuruak hazten jarraituko du gure Komunitatean; hemen, 2000 urteko aurreikuspenek eritasunak jotako 6.500 pertsona egonen direla adierazten dute.

Alzheimerriaren gorakada pertsonen biziaren iraupenaren luzatzeari lotua dago. Eritasunaren eraginak adina gehitzeari loturiko progresioa du: 70 urte baino gehiagokoen %4k eta 85 urte baino gehiagokoen %30ek jasaten du.

Nafarroan, gizarte-eragina oso garrantzitsua izan liteke, bestelako populazio-faktore batzuk direla-eta. Europako jaiotza-tasarik baxuena eta nazioko batezbestekoaren gainetik dagoen bizi-raupena dauzkagu; horrek ekartzen du eritasun hori garatzeko aukerak dituzten adinduen portzentaiaren hazkuntza jarraia.

Bai Alzheimerri buruzko 1997ko Biltzar Nazionalan bai joan den martxoan AFANek (Nafarroako Alzheimer Gaixoen Senideen Elkar-teea) antolatutako eritasun horri buruzko VI Jardunaldietan agerian utzi da beharrezkoa dela Nafarroako erakundeek ahalegin handia eta premiazkoa egin dezaten gaixoei eta beren familiei zuzenduriko laguntza orokorra abian jartzeko, Nafarroako gizarte osoak etorkizunean jasan ditzakeen ondorioak kontuan hartuz.

Bi une horietan azpimarratu egin da instantzia ezberdinen artean koordinatzeko beharra; zehazki, Gizarte Ongizate eta Osasun Departamentuen artean, ekintza orokorrak eta disziplinartekoak burutzeko.

Bai martxoko VI. Jardunaldietan bai ondoren, Nafarroan aurrerantzean Alzheimerri buruzko Laguntza Plan bat egotearen beharra azalduz hainbat profesionalak eta AFANek emandako azalpenen berri eta dirudienez atzeratzen ari den aurreproiektu batean oinarritutako elkarrekin lan egiteko aukeraren berri eman du prentsak.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamena aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean Alzheimer gaixotasunak Nafarroan jotako pertsonen Laguntza Orokorra emateko Plana bidal diezaion Biltzar honi.

Iruñean, 1998ko apirilaren 15ean

Foru Parlamentaria: Isabel Arboniés Bermejo

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen alorreko kontzertuak arau ditzan

REYES CORTAIRE TIRAPU FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak ondoko mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen alorreko kontzertuak arau ditzan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Reyes Cortaire Tirapu, "Nafarroako Demokraten Elkargunea"-Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoek xedaturikoari jarraituz, honako mozio hau aurkezten dio Parlamentuko Mahaiari.

Kontuen Ganbarak salatu du Gizarte Zerbitzuen arloko itunen-sistemaren aplikazio praktikoa porrot egin duela. Baita ere, ondorioen artean, hauxe azpimarratzen du: laguntza-kalitate egokiaren eta kontzertuan hitzarturiko moduluaren bitartez finantza daitekeen kostuaren artean oreka aurkitzea zaila dela. Kontuen Ganbarak hauxe gomendatzen du:

"Egungo itunen-sistema sakonki berrikustea, normalizaturiko baldintza-sortak prestatzea posible eginen duena, honako hau bermatu ahal izateko: laguntza-kalitate egokia, Institutuak bere gain har dezakeen kostua eta onuradunaren erosketaboterearen arabera onargarriak diren tarifak. Halaber, kontzertuen bideragarritasun ekonomikoa eta euren laguntza-kalitatea ziurtatzeko beharrezkoak diren kontrolak egin behar ditu Administrazioak".

Bestalde, 1985eko urriaren 25eko Gizarte Zerbitzuen arloko Kontzertuei buruzko Foru Legeak, printzipio inspiratzaileen artean, hauxe adierazten du: "halako egonkortasuna lortzea elkarturiko edo lankide diren entitateei eginiko ekarpen ekonomikoaren jarraitasunean", eta "zentro eta zerbitzuen

prestazioen kalitatean homogeneousotasuna lortzea, Nafarroan aurkitzen diren Zentro eta Zerbitzu guztientzat akreditazio-arau batzuk orokorki ezarri, eta Gizarte Zerbitzuen arloan diru publikoaren gastua kontrolatzeko sistemak hobetzea".

1997ko ekainaren 10ean, Nafarroako Gobernuak, kontzertuei buruzko Kontuen Ganbararen gomendioak abian jartzeari buruz "Nafarroako Demokraten Elkargunea"n eginiko galdera bati erantzunez, hauxe azaldu zuen: ondoren eginiko esleipenetan Ganbarak adierazitako arazoak konpondu dituela eta "Kontuen Ganbarak bere txostenean egin dituen gomendiorik gehienak jadanik abian jarri" dituela. Erantzun berean, Nafarroako Gobernuak txosten horretan agerturiko akatsak ekiditeko guztira eginiko 13 aldaketak azaltzen ditu.

Hala ere, gatazkek oraindik ere badiraute. Lehenagotik itundutako zentroetako langileak daude horietan sartuta.

Nafarroako Gobernuak zerrendaturiko neurrien artean honako hauen hutsunea nabaritzen da: aipaturiko 1985eko urriaren 25eko Foru Legeko artikuluei lotuta egonen lirakeenak. 5. artikuluan xedatzen da kontzertuek nahitaez hainbat puntu ukitu beharko dituztela, besteak beste: "j) Kontzertuaren xede den Erakundearen, Programaren edo Zerbitzuaren aurrekontua, edo, hala bada, administrazio publiko itun-egilearekin lankidetzan eginiko eta itundu beharreko zerbitzuen kostuaren aurreikuspena". Halaber, 6. artikuluko 2. idazatiak zehazten duenez, "kontzertuak ekitaldi ekonomiko bakoitzaren amaieran berrikusi beharko dira, baldintza ekonomikoak eta laguntza-prestazioak errealitatean dauden beharrezkoak egokitzeko". Bi alderdiok, gure ustez, ez dira behar bezala kontuan hartzen, eta horren ondorioz Gizarte Ongizateak itunduriko entitateetan zerbitzua emateko kontraturiko pertsonen soldadari eta lanaldiari dagokien bereizkeria gertatzen ari da; horrek eragin negatibo larria dakarkio eman beharreko zerbitzuen kalitateari.

Hori guztia dela-eta, Parlamentuko Osoko Bilkurak honako erabaki-proposamena har dezan eskatzen da:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala honako honi ekin diezaion:

1.- Gizarte Zerbitzuen alorreko kontzertuak arautzeari, Gizarte Zerbitzuen arloan itunduriko zentroyen eta zerbitzuen prestazioen homogeneotasun eta kalitatearen printzipioak bermatu ahal izateko.

2.- Gizarte Zerbitzuen alorreko kontzertuak arautzeari, soldatei eta lanaldiari dagokienean

dagoen bereizkeria larria zuzentzeko, itunduriko zentroetan emandako zerbitzuen kalitatea bermatu ahal izateko”.

Iruñean, 1998ko apirilaren 17an

Foru Parlamentaria: Reyes Cortaire Tirapu

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren jokaera gaitzesten da, zenbait sendagai Gizarte Segurantzatik kanpo uzteari buruzko erabakiak ez betetzeagatik

IZAPIDEA OSOKO BILKURAN EGINGO DA

1998ko apirilaren 21ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen, 1998ko apirilaren 16ko 26 zk.ko NPAOn argitaratu zena: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren jokaera gaitzesten da, zenbait sendagai Gizarte Segurantzatik kanpo uzteari buruzko erabakiak ez betetzeagatik”. Mozio honen tramitazioari buruz

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako idazkia ikusirik, ERABAKITZEN DA:

1. Aipatu mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatu-ko dela xedatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko apirilaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F saila:
GALDERAK

Sendagaien fakturazioan aurreztegatik balizko sariak jaso ditzaketen medikuen zerrendari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak sendagaien fakturazioan aurreztegatik balizko sariak jaso ditzaketen medikuen zerrendari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco jaunak, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Otsailaren 3ko Diario Médico egunkariak Nafarroako Gobernuko Osasun Kontseilariaren adierazpen batzuk argitaratu zituen -inork ez ditu ez zuzendu, ez zehaztu; beraz, ongi jasota daudela

uste behar dugu-. Horien arabera, beste gauza batzuen artean, Osasun Departamentuan asmoa dago oinarrizko osasun laguntzako sendagileak saritzeko 1998 ekitaldian botiken fakturazioak gertatuko den aurrezkiaren ehuneko 80rekin.

Adierazpen horiek, medicamentazo izenekoaren testuinguruan ulertu behar dira, izan ere Gizarte Segurantzatik 869 sendagai -edo 846, haietako 23 berriz errezetatzeko moduan sartzeko egin diren azken aldaketan arabera- kentzeko eta modu horretan sendagai-gastuetan dirua aurreztu ahal izateko.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Aipatu proposamenera bilduko diren Osasun Etxe eta Kontsultategietako sendagileen zerrenda izenduna.

2. 1997 urtean jasotako lansariak, egun bakoitzean kasu emandako erien kopurua eta kasu emandako eri bakoitzarentzat egindako errezeten batezbesteko kostua.

Iruñean, 1998ko apirilaren 3an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Sendagaietan aurreztegatik emango omen diren sariak direla-eta, kontsulta mediku ratioetan sortu daitezkeen ondorioei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak sendagaietan aurreztegatik emango omen diren sariak direla-eta, kontsulta mediku ratioetan sortu daitezkeen ondorioei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco jaunak, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Otsailaren 3ko Diario Médico egunkariak Nafarroako Gobernuko Osasun Kontseilariaren adierazpen batzuk argitaratu zituen -inork ez ditu ez zuzendu, ez zehaztu, beraz, ongi jasota daudela pentsatu behar dugu-. Horien arabera, beste gauza batzuen artean, Osasun Departamentuan asmoa dago oinarrizko osasun laguntzako sendagileak saritzeko botiken fakturazioan 1998 ekitaldian gertatuko den aurrezkiaren ehuneko 80rekin.

Adierazpen horiek, medicamentazo izenekoa- ren testuinguruan ulertu behar dira, izan ere Gizarte Segurantzatik 869 sendagai -edo 846,

haietako 23 berriz errezetatzeko moduan sartzeko egin diren azken aldaketen arabera- kentzeko eta modu horretan sendagai-gastuetan dirua aurreztu ahal izateko.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Ea kontsulta/sendagilea ratioek eragina izanen ote duten balizko sari horietan edo bestela, ea lansari hori egindako lana, lanera agertzea, ordutegiak betetzea eta abar kontuan izan gabe aplikatu behar den.

2. Balizko proposamen horrek lanpostu finkoa ez duten sendagileengan ere eraginen ote duen edo bestela, neurri horren onurak balioko ote duen lana kontratupeko sendagileei pasatzeko, langile finkoen onerako.

3. Ba al dago irizpen juridiko edo teknikorik neurri hori babesten dutenik?

4. Zer formula erabiliko da zenbateko horiek ordaintzeko?

5. Zer irizpide aplikatuko dira sartu berritako sendagileak baldin badaude?

6. Nola egingen da sendagai-gastuetako zenbatekoak langileen gastuei buruzko I. kapitulura aldatzeko? Nola jasoko dituzte sendagileek I. kapituluko aurrekontuez kanpoko zenbatekoak, eta hala bada, gastuen zein kapituluri egotziko zaizkio gastu horiek?

Iruñean, 1998ko apirilaren 3an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Sendagai orokorrak errezetatzekotan, kasu horretarako aurreikusi diren zuzenketei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak sendagai orokorrak errezetatzekotan, kasu horretarako aurreikusi diren zuzenketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco jaunak, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierda-ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Otsailaren 3ko Diario Médico egunkariak Nafarroako Gobernuko Osasun Kontseilariaren adierazpen batzuk argitaratu zituen -inork ez ditu ez zuzendu, ez zehaztu, beraz, ongi jasota daudela pentsatu behar dugu-. Horien arabera, beste gauza batzuen artean, Osasun Departamentuan asmoa dago oinarrizko osasun laguntzako sendagileak saritzeko botiken fakturazioan 1998 ekitaldian gertatuko den aurrezkiaren ehuneko 80rekin.

Adierazpen horiek, medicamentazo izenekoaren testuinguruan ulertu behar dira, izan ere Gizarte Segurantzatik 869 sendagai -edo 846, haietako 23 berriz errezetatzeko moduan sartzeko egin diren azken aldaketen arabera- kentzeko eta modu horretan sendagai-gastuetan dirua aurreztu ahal izateko.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Sendagai orokorrak errezetatzen badra, hori baita Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzorde-

aren aginduetako bat, zer nolako zuzenketak (jakina da kontzeptu horretan ehuneko 30 inguruko aurrezki dagoela merkatuko produktu berdinen aldera) aurreikusi ditu, halakorik behar izanez gero? Dena den, sendagai orokorrak errezetatzeagatik aurrezten dena ia erabat ematen bada sendagileak ordaintzen, non dago Nafarroako Foru Ogasunarentzako aurrezki nabarmen hura?

2. Ildo beretik, zein irizpide aurreikusi ditu, Osasun Departamentuak, botika-errezetengatik jasoagiriaren, sendagileei ordaindutako zenbatekoen eta ustezko ehuneko 20ko aurrezkiaren batuketak gaur egungo farmazia-gastuen zenbatekoak ez duela gainditzen bermatzeko? Zein neurri hartuko dira halakorik gertatzen bada?

3. Alderantziz, Osasun Kontseilariak iragarritako sistema aplikatzea erabakitzen bada, zein arrazoi daude soilik sendagaien kostua murriztea saritzeko eta irizpide hori ez zabaltzeko Administrazioari gainerako lan-eremuetara, besterik ez bada ere diskriminazioaren sentimenduetatik ez handiagotzeko beste alor batzuetako gastuak, Osasun Departamentuan bertan ere bai, gero batean antzeko tratamendu bat eskatzeko?

Iruñean, 1998ko apirilaren 3an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Errezeta medikuen zenbatekoa jaitsi daitekeela erakusten duten ikerketa teknikoei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak errezeta medikuen zenbatekoa jaitsi daitekeela erakusten duten ikerketa teknikoei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco jaunak, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierda-ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Otsailaren 3ko Diario Médico egunkariak Nafarroako Gobernuko Osasun Kontseilariaren adierazpen batzuk argitaratu zituen -inork ez ditu ez zuzendu, ez zehaztu, beraz, ongi jasota daudela pentsatu behar dugu-. Horien arabera, beste gauza batzuen artean, Osasun Departamentuan asmoa dago oinarrizko osasun laguntzako sendagileak saritzeko botiken fakturazioan 1998 ekitaldian gertatuko den aurrezkiaren ehuneko 80rekin.

Adierazpen horiek, medicamentazo izenekoaren testuinguruan ulertu behar dira, izan ere Gizarte Segurantzatik 869 sendagai -edo 846, haietako 23 berriz errezetatzeko moduan sartzeko egin diren azken aldaketen arabera- kentzeko eta

modu horretan sendagai-gastuetan dirua aurreztu ahal izateko.

Hori guztia dela eta, ezagutu nahi da:

1. Zein azterketarengatik eta zein arrazoiengatik uste duen Osasun Departamentuak gure Komunitatean sendagaien errezetatetan gutxiago gastatu daitekeela, haiek preskribitzen dituzten sendagileengan eraginez.

2. Ea uste ote duen Osasun Departamentuak horrelako neurri bat, alegia zorrotzasun irizpidea

izatea (izan ere orain arte hala jokatu izan ez balitz, bestelako neurriak hartu beharko ziren Administrazioaren gaingastuan aurreztu ahal izateko), beharrezkoa dela eta ez ote duen uste, gainera, diskriminazioa sor dezakeela sendagaiak errezetatzeko orduan zorrotzasunez jokatzeko zuten sendagileengan, izan ere gutxiago sarituko lituzketelako sendagai asko errezetatutako sendagileak baino.

Iruñean, 1998ko apirilaren 3an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Abelur jarduerako istripuei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak abelur jarduerako istripuei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Azken hilabete hauetan eztabaida eta adierazpen garrantzitsuak ikusi ditugu Nafarroak dituen ezbehar-kopuruari buruz. Izan ere, Nafarroa Europako ezbehar-kopururik handienetako bat du.

Orain gutxi eginiko ikerketa batek dioenez, 1997an 9 hildako izan dira ezbeharren ondorioz nekazaritzan; aitzitik, estatistika ofizialak begiratzeko baditugu, haietako bakarra jasotzen du estatistika ofizialak.

Estatistika horrek berak esaten badu 350 ezbehar arin eta larri gertatu direla nekazaritzan, zenbat gertatu ote dira benetan?

Nekazaritzan eta abeltzaintzan ari diren langileak, horietarik gehienak (% 80) norbere kontura-

ko langileak, ez daude Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen aplikazio eremuan.

Nekazaritza eta abeltzaintza lana lege askieztasunean egiten da. Gainera, nekazaritza eta abeltzaintza lanek, geroz eta gehiago, klase askotako teknologiak erabiltzen dituzte eta arlo ezberdinetan, mekanizazio handiko nekazaritza komertzialetik hasi eta bizitzeko lain ematen duen ustiapen txikitako nekazaritaraino.

Orokorrean, segurtasun teknikak eraginkortasun gutxiagoz aplikatzen dira nekazaritzan.

Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintzan ematen den ezbehar-kopuruari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Zer sistema du Nafarroako Gobernuak, edo jarduera hori dagokion erakundeak, nekazaritzan ematen diren ezbeharren berri izan eta horiek erregistratzeko, bai ezbehar arinak, larriak edo hildakoak eragiten dituztenak izan?

2.- Nola ezberdintzen ditu Administrazioak, estatistiketan horrela azal daitezkeen, nekazaritzan hildakoak eragin dituzten ezbeharrek eta beste sektore ekonomikoetan hildakoak eragin dituztenak?

3.- Gure komunitateko nekazarien eta abeltzainen segurtasunarekin zerikusia duten zer jarduera eramaten ditu aurrera Nafarroako Gobernuak?

4.- Zer jarduketa aurreikusi du Nafarroako Gobernuak etorkizunerako, zenbakiak erakusten dutenez, nahiko larria den arazo hori konpontzeko?

Iruñean, 1998ko apirilaren 3an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Atarrabiako etxebizitzaren urbanizazio bat eta igerilekugunea zeharkatzen duen goi-tentsioko hari elektrikoaren ibilbidearen zuzenketari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Atarrabiako etxebizitzaren urbanizazio bat eta igerilekugunea zeharkatzen duen goi-tentsioko hari elektrikoaren ibilbidearen zuzenketari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ezkaba aldetik Atarrabiara heldu eta herri horretako Martiket izeneko lekutik pasatzen diren goi-tentsioko elektrizitate hariak (66.000 kilovolt) kezka sortzen dute elektrizitate hari horietatik gertu bizi direnengan; eta gainera, hari horiek herriko igerileku aldea ere zeharkatzen dute.

Hori guztia dela eta, herrian bizi direnek, aipatu hariak duten arriskua dela eta, hari horiek kendu, horien ibilbidea aldatu edo hariak lur azpian sartzea eskatu dute.

Atarrabiako igerileku aldetik eta urbanizazio batetik doan goi-tentsioko elektrizitate harien ibilbidearen zuzentasunari buruz, ondoko galderen erantzuna eskatzen da:

1.- Betezen al dituzte aipatu elektrizitate harien indarrean dagoen legediak ezarritako segurtasun neurriak?

2.- Egin al du Nafarroako Gobernuak azterlanen bat, edo hori egiterik aurreikusi al du, aipatu elektrizitate hariak kendu, horien ibilbidea aldatu edo bestela lur azpian sartzeko?

3.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuak, egoera ikusirik, uste al du elektrizitate hariak lur azpian sartzea irtenbiderik hoberena dela?

4.- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak, Ezkabatik Atarrabian sartu eta herriko igerilekutik eta Martiket urbanizaziotik pasatzen den elektrizitate hariak Ingurugiro Kalitaterako Planean lehen-tasuna duten elektrizitate harien aldaketan barne sartzea?

5.- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak, Ezkabatik Atarrabian sartu eta herriko igerilekutik eta Martiket urbanizaziotik pasatzen den elektrizitate hariak Administrazioa eta Iberdrola enpresaren arteko hitzarmenaren ondorioz eginiko jarduketaren aurreikuspenetan sartzea?

Iruñean, 1998ko apirilaren 2an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Naturguneen sareari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak naturguneen sareari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Naturguneei buruzko Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriak ezarri zuen Nafarroako Gobernuak gehienez ere hiru urteko epean, Nafarroako Nafarroako Lekune Naturalen sarea osatu zuela, jendaurreko informazioa eman eta Nafarroako toki entitateei entzun ondoren.

Hori dela, Nafarroako lekune naturalen sareari buruzko ondoko galderei erantzutea nahi da:

1. Zenbat lekune natural daude une honetan Nafarroan?

2. Zenbat deklaratu ditu Nafarroako Gobernuak azken hemezortzi hilabete hauetan? Halakorik bada, zein izan dira lekune naturalik batere ez deklaratzeko arrazoiak?

3. Ba al du Nafarroako Gobernuak xedapen gehigarri hau betetzeko asmorik?

4. Zein neurri zuzentzaile hartu ditu Nafarroako Gobernuak gaur arte eta zeintzu sustatu behar ditu lekune natural horiek 1999ko ekaina baino lehen deklaratzeko?

5. Zein lekune natural berri deklaratu behar dira? Zein udaletan daude?

6. Izan al da kontakturen bat ukitutako toki entitateekin? Zein izan da haien iritzia?

Iruñean, 1998ko apirilaren 6an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako Unibertsitateari, Klinika Unibertsitarioari eta haien fundazioei, halakorik balitz, eman zaizkien laguntzei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAKEGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Nafarroako Unibertsitateari, Klinika Unibertsitarioari eta haien fundazioei, halakorik balitz, eman zaizkien laguntzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko Hezkuntza eta Kultura gaietarako bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzuen diezaioten.

Otsailaren 20an, bozeramaile honek zenbait galdera egin zituen Nafarroan unibertsitate mailako prestakuntzarako guztira egiten den gastuari buruz.

3. galderan, !Dirulaguntzak, bestelako laguntzak eta hitzarmenak Nafarroako Unibertsitateko

eta Unibertsitate Klinikako ikerketa-proiektu eta jardueretarako" aipatu nituen. Erantzunak –huts egite bat izanen zen– ez zen Unibertsitate Klinikara aipatzen.

Beste aldetik, Nafarroako Aurrekontuetatik ematen diren laguntza eta dirulaguntzei buruzko galderak ziren. Erantzuna, berriz, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak bidali zuen: litekeena da, ordea, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuetatik ere laguntzak ematea, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, Nafarroako Unibertsiterako, Unibertsitate Klinikarako edo bi horiek kudeatzen dituzten fundazioetarako, alegia, unibertsitate prestakuntzaren eta ikerketaren alorrean ari diren horietarako.

Hori dela eta, jakin nahi da:

1) Nafarroako Gobernuko departamentu guztietatik zer laguntza, dirulaguntza eta hitzarmen ematen dizkiete, 1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, prestakuntzarako, unibertsitate-zabalkunderako, ikerketarako eta antzeko jardueretarako Nafarroako Unibertsitateari, Unibertsitate Klinikari eta bien fundazioei, halakorik balego?

Iruñean, 1998ko apirilaren 6an

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Nafarroako hezeguneeen inbentarioari eta haren eguneratzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako hezeguneeen inbentarioari eta haren eguneratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

1.- Zer ekimen burutu ditu Nafarroako Gobernuak Lokiz mendia parke natural deklaratzeko? Zer harreman zehatz izan dira dagokien toki entitateekin?

2.- Idatzi al da edo idazten ari al da natur baliabideak antolatzeko plana? Izatekotan, zeintzuk dira atzerapenaren arrazoi zehatzak?

3.- Noiz hasiko da plan horren administrazio-izapidatzea? Zer Administrazioak izapidatuko du plana, Nafarroako Gobernuak edo hala dagokien toki entitateek? Noizko aurreikusi da plana indarrean sartzea?

4.- Noizko aurreikusi da Lokiz mendia parke natural deklaratzeko?

5.- Noizko aurreikusi da Lokiz mendia parke natural deklaratzeko?

5.- Ba al dakite Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek Nafarroako Naturguneei buruzko Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriak lau urteko epea aurreikusten duela natur baliabideak antolatzeko plana onesteko parke natural deklaratzeko aurretik eman behar den urratsa

eta epea 2000 urteko ekainaren 29an amaituko dela?

Iruñean, 1998ko apirilaren 8an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Codés Mendiko parke naturalari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Codés Mendiko parke naturalari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 9/1996 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak behar diren ekimenak burutuko ditu, bai berak edo, bestela, dagokien toki entitateek ondoren aipatuko diren lurraldeak parke natural deklaratzeko: Urbasa-Andia (hala deklaratu du dagoeneko foru lege batek), Bardeak (legegintzaldi honetan ari da izapidatzen eta legegintzaldi honetan deklaratu da), Aralar, Nafarroako Pirinioa, Belate, Kintoa, Bortzirietako mazizoa, Leire men-

dia, Illon mendia, Lokiz mendia eta Kodes mendia.

Hori guztia dela eta, Kodes mendiko parke naturalari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Zer ekimen burutu ditu Nafarroako Gobernuak Kodes mendia parke natural deklaratzeko? Zer harreman zehatz izan dira dagokien toki entitateekin?

2.- Idatzi al da edo idazten ari al da natur baliabideak antolatzeko plana? Izatekotan, zeintzuk dira atzerapenaren arrazoi zehatzak?

3.- Noiz hasiko da plan horren administrazio-izapidatzea? Zer Administrazio izapidatuko du plana, Nafarroako Gobernuak edo hala dagokien toki entitateek? Noizko aurreikusi da plana indarrean sartzea?

4.- Noizko aurreikusi da Kodes mendia parke natural deklaratzeko?

5.- Ba al dakite Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek Nafarroako Naturguneei buruzko Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriak lau urteko epea aurreikusten duela natur baliabideak antolatzeko plana onesteko parke natural deklaratzeko aurretik eman behar den urratsa eta epea 2000 urteko ekainaren 29an amaituko dela?

Iruñean, 1998ko apirilaren 8an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Iruñeko zenbait auzotan D eredia ezartzeko dauden eskaerei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Iruñeko zenbait auzotan D eredia ezartzeko dauden eskaerei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejo, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Hezkuntza eta Kultura gaietarako Bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarrikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Azken bolada honetan, Iruñeko Donibane, Mendebaldea eta Ermitagaña auzoetako ikastetxe publikoetan "D" eredia ezar dadin guraso-talde batek eginiko eskaeraren berri eman dute komunikabideek.

Guraso-talde horrek dioenez, Iruñeko alde horretan 320 haur eskolaratzeko aurreikuspena dago egun, eta ikastetxe publikoetan ez daukate "D" ereduko lerro bakar bat ere.

Begi-bistakoa da "D" ereduko lerrorik irekitzen ez baldin bada eskola-haur horiek uko egin behar izanen diotela hezkuntza-aukera horri edo, bestela, beren auzoetatik kanpoko beste ikastetxe batzuetara joan behar izanen dutela, oso adin txikiarekin (3 urte); adin horretan, norberaren inguruan kokatzea berebiziko garrantzikoa da, bai haurrentzat bai beren familientzat.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1.- Datorren ikasturtean, hau da, 98/99an, Haur Hezkuntzan "D" eredia jar dadin zona horretako gurasoek eginiko eskaera aintzat hartuko al da?

2.- Donibane, Mendebaldea eta Ermitagaña inguruetako 320 eskola-haurren kopuru garrantzitsu hori kontuan hartuz, datorren ikasturtean zenbat lerro egonen da eta zer ikastetxe publikotan kokaturik egonen dira?

Iruñean, 1998ko apirilaren 8an

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Elortz ibaiko ur beltzen isurketa sortu duen kolektoreari buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak Elortz ibaiko ur beltzen isurketa sortu duen kolektoreari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendariz, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarrikoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du:

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik joan den martxoaren 25ean Elortz ibaian izandako ur beltzen isurketa eragin zuen hodi biltzailea ixteko?

- Nafarroako Gobernuak detektatuak al dauzka Elortz ibaiko kutsaduraren sorburuak?

• Elortz ibaia bereoneratzeko jarduketarik egitekoko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 1998ko apirilaren 2an

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

Noingo Udaleko kontabilitate-informazioan sortutako arazoei buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Noingo Udaleko kontabilitate-informazioan sortutako arazoei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendárizek, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du:

Joan den apirilaren 2an, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio Departamentuko Koordinazio Ekonomikoaren zerbitzuburuak sinaturiko idazki bat bidali zion Noingo Udalari (Elortz). Idazki horretan aditzera ematen zen Udal horretako ekonomi alorrean sorturiko arazoen aurrean (1996 eta 1997 ekitaldietako kontabilitateari buruzko informazio eza), interesgarria izanen litzatekela ahaleginak batu eta Udal horretako

ekonomi alorra indartzea, horretarako Kontuen Ganbarari auditoretza eskatuz ere.

Beste aldetik, martxoaren 18an, ANIMSAko teknikari bat, Noain-Elortz Udaleko langileak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarako lanean ari zen ekonomilari bat bildu eta ondoko puntuak azpimarratzen zituen txostena egin zuten: Udalaren Osoko Bilkurak 1995eko kontuei buruz onetsi zuen espedientea ez dator bat aurrekontu-ekitaldi horretako betetze errealarekin; ezberdintasun nabarmenak daude eta Noain-Elortz Udaleko 1995eko aurrekontuetako bi ixte edo betetze ageri dira: bata Osoko Bilkurak onetsitakoa eta bestea ordenadorean sarturiko betetze errealak.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

-Zer neurri hartu ditu edo hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak Noain-Elortz Udaleko kontabilitate-informazioan sorturiko arazoak konpontzeko?

-Zer urrats eman ditu Nafarroako Gobernuak Toki Administrazio Departamentuko Koordinazio Ekonomikoaren zerbitzuburuaren idazkian arazo horri buruz Kontuen Ganbarako auditoretza eskatzeari dagokionean?

Iruñean, 1998ko apirilaren 16an

Foru Parlamentaria: Ion Iñaki Erro Armendáriz

Uxueko Santa Maria monumentu-multzoan aurreikusi eta hitzartutako jarduketei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Uxueko Santa Maria monumentu-multzoan aurreikusi eta hitzartutako jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

1996ko abenduaren 31n, Uxueko Santa Maria Gotorleku-Santutegiaren mantenimendu eskasaren egoera zela eta, eta ikusita eguraldiak (ura, haizea...) sorturiko kalteak, sinistuta egoerari buelta emateko modua dagoen bitartean ahal den eta azkarren esku hartu behar dela, galdera batzuk egin nizkion Nafarroako Gobernuari aipaturiko hondatze-egoerari buruz.

Uxueko Santa Maria, gure Komunitateko historiako errege-leinuen gotorleku eta ikurra, Nafarroako Erregeen babeslekua izan zen; santutegiak, gainera, eskualde horretako hainbat herritako erromeria jendetsuak hartzen ditu.

Uxueko Santa Maria, gotorleku eta santutegia izandakoa, urtean zehar hainbeste bisitari hartzen dituen ondare baliotsua da. Egun duen egoera tamalgarria da eta hondatze larriak ditu.

1997ko urtarrilaren 10ean, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria Miguel Sanz Sesma jaunak, herrian izandako bilera batean -eta José Iribas jauna eta Tafallako alkatea Luis Valero jaunak ere bazeuden bilera horretan-, Nafarroako Gobernuak hasierako lanei ekiteko prest zegoela iragarri zuen, nahiz eta uste izan Uxueko Santa Marian behar zen eskuhartzea urte anitzeko plan batean sartu behar zela.

Gobernuko Lehendakariak eta Vianako Printzea Erakundeko ordezkariak adierazitako obren artean, ondokoak ziren presa handiena zutenak: ingurubidearen gaineko teilatua konpontzea (3 milioi pezeta), gotorleku-santutegiko pitzadurak konpontzea (5 milioi pezeta) eta sarrerako atea txukuntzea (1,2 milioi pezeta).

Halaber, aipaturiko egunean Iribas jaunak bere burua eskaini zuen Foru Administrazioaren eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren arteko bitartekari lanak egiteko, hain zuzen ere Estatuari laguntzaren bat eskatzeko Uxueko Santa Marian egin beharreko lanetarako. Gogoratu behar da 30eko hamarkadan monumentu historiko eta artistiko deklaratu zutela.

Beranduago, abenduaren 13an, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria Marcotegui jaunak eta bere Departamentuko zenbait ordezkariak bilera bat egin zuten Uxueko Udaleko eta Santa Mariako arduradunekin.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazi zuen: ez dago Uxueko Santutegiaren kontserbazio-egoerari buruz duelako gutxi egindako azterlanik; hasierako eskaerak, alegia, onartu ziren haiek, lotura gehiago dute eraikinaren mantenimendu-lan arruntekin zaharberritze kontzeptuarekin baino. Azken finean, ez da deus zeharberrituko, monumentu-multzoaren kontserbazioa bermatzeko obrak besterik ez da eginen.

Lehen aipatu dudan parlamentu-galderari erantzuteko, Marcotegui jaunak 24.550.000 pezetatan ezarri zuen hasierako konponketak egiteko aurrekontua eta ondokoa adierazi zuen: "Ez du Nafarroako Gobernuak hasi behar jarduketarik aurreikusiriko kontserbazio obretan, Artzapezpikutzak berak baizik, eraikinaren iganderoko titularra den aldetik. Nafarroako Gobernuak, hala bada, dirulaguntza bat emanen du, obren kostua eramaten lagunduko duena, jarduketa hori gutxi gora-behera hilabeteko epean ebatziko delarik".

Berriki, Uxueko Monumentu-multzoaren Adis-dikkeen Elkarteak, hain zuzen ere lehen aipaturiko egunetan eratutakoak, Nafarroako Gobernuari eskatu dio Zaharberritze Plana egiteko eta plan hori kudeatuko duen Patronatu bat sortzeko.

Egia esateko, Gobernuko Lehendakariaren, senadorearen, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren eta Tafallako alkatearen bisita izan eta urte

eta erdi beranduago, oraindik ez da jarduketarik batere egin.

Uxueko Santa Maria monumentu-multzoan aurreikusi eta hitzartutako jarduketak direla eta, ondoko galderari erantzuteko eskatzen dizut:

1. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gobernuko Lehendakariak hitz emandako jarduketak burutzea? Noizko aurreikusi da jarduketa horiek hastea?

2. Izan al du Nafarroako Gobernuak 1997ko urtarilaz geroztik bileraren bat Uxueko Udaleko arduradunekin, Elizako arduraduneko edo Uxuen sorturiko elkartearekin berarekin Santa Maria monumentu-multzoarekin loturiko gaiari buruz hitz egiteko?

3. Ba al du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gobernuaren Lehendakariak adierazi zuen bezala urte anitzeko Zaharberritze Planen bat lantzeko asmorik? Ba al du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak 24 milioitan aurreikusitako gastua betetzeko asmorik, hain zuzen ere jarduketa zehatz eta presakoei ekiteko?

4. Uste al du Nafarroako Gobernuak komenigarria dela Zaharberritze Plan horren garapena kudeatu dezakeen Patronatu bat sortzea?

Iruñean, 1998ko apirilaren 17an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

PFEZaren erreforma bat Nafarroan aplikatzeak izanen duen eragin ekonomikoari buruzko galdera

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak PFEZaren erreforma bat Nafarroan aplikatzeak izanen duen eragin ekonomikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Fermín Ciáurriz Gómez, Askotariko Taldeari atxikiriko Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Berriki jakinarazi dira publikoki Gobernu Zentralaren Lege Proiektuak aurreikusten dituen neu-

rriak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldatzeari dagokionez.

Antzekoa edo berdina den erreforma aplikatuz arlo honetako gure legedia aldatu nahi bada, Nafarroako Gobernuko kideren batek iragarri bezala, horrek Nafarroako Ogasunaren dirubilletan izanen duen eragina balioetsi ahal izateko, Parlamentari honek galdera hauexei idatzizko erantzuna eman dakien nahi du:

1.- Gobernu zentralak aurreikusitakoaren eta iragarritakoaren berdina edo antzekoa den PFEZaren erreforma bat Nafarroan aplikatzeak izanen duen eragin ekonomikoa kalkulatu al du Gobernuak?

2.- Zein izanen litzateke Erreforma horren kostua Foru Ogasunarentzat, aurreikusitako aldaketa bakoitzarena nahiz osotasunarena?

Iruñean, 1998ko apirilaren 17an

Foru Parlamentaria: Fermín Ciáurriz Gómez

Iruñeko espetxean gertaturiko elikagaiengatik toxikapenari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Iruñeko espetxean gertaturiko elikagaiengatik toxikapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

1998ko apirilaren 11n, Iruñeko Lurraldeko Espetxean, espetxeratuei emandako afarian zegoen elikagai batek 32 pertsona toxikatu zituen. Toxikatuen artean 31 preso eta goardian zegoen funtzionario bat daude. Horietatik hiru, sintomengatik, Nafarroako Ospitalera eraman zituzten beharrezko tratamendua jasotzeko.

Abian jarri den osasun-ikerketaren lehenbiziko diagnostikoan aipatu da maionesa izan dela salmonelosiarekin zerikusia izan dezakeen arazoaren jatorria. Dirudenez, kutsaturiko arrautzekin prestatu zen maionesa. Txokikapenaren jatorria erabat zehazteko, behar diren analisien emaitzak heldu zain gaude. Atzo, ukitutako 8 pertsona baja medikoan zeuden oraindik.

Ondoko hauek gogoratzea merezi du: gure legedian osasuna babesteko eskubidea biltzen da baita prebentzio neurrien bidez eta bera berma-

tzeko behar diren zerbitzuak eskainiz osasun publikoa antolatu eta zaintzeko eta horretarako behar diren zerbitzuak emateko botere publikoek duten eskumena; argi dago kezka dagoela espetxeratuek honelako egoera berezietan dituzten zailtasunengatik; gainera, bi administrazioek esku hartu behar izateak koordinazio arazoak sor ditzaketel presa eta behar larriko egoera batean.

Hori dela eta, Iruñeko Lurraldeko Espetxean 32 pertsona ukitu dituen elikagaiengatik toxikapenaren inguruan, ondoko galderei erantzutea eskatzen da:

1. Zer jarduketa burutu ditu Nafarroako Gobernuak edo jardutea dagokion erakundeak sorturiko egoeran lagundu, tratamendu medikoa eman eta egoera aztertzeko?

2. Zein izan da elikagaiengatik toxikapenaren jatorria? Gertatu al da asteburuetan espetxeratuta daudenek izaten duten kasu-emate eskasarengatik? Nolako bilakaera izan dute toxikatuak? Zer nolako ondorioak atera daitezke bilakaera horretatik?

3. Zein da kasu horretan eskudun den osasunerakundeak? Zer neurri berezi hartu behar dituzte osasun publikoaren alorrean eskudun diren agintariek antzeko egoerak gerta ez daitezen zailtasun bereziak dituzten jende-multzoetan, espetxeratuak kasu?

4. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat egitea espetxeratuen osasunerako arriskuen prebentzioak eraginkortasun handiago izan dezan, plangintza eta osasun-ebaluazioren baten bitartez? Zer nolako jarduketak burutuko ditu?

Iruñean, 1998ko apirilaren 18an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Aste Santuko trafikoaren zainketa, kontrol eta segurtasun lanei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Aste Santuko trafikoaren zainketa, kontrol eta segurtasun lanei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Hotz eta elur bolada labur baina tinko batek ondorio latzak izan zituen gure Komunitateko zenbait alderditan; gainera, Aste Santuko asteburuen suertatu zen, hain zuzen ere milaka hiritar oporraldietatik itzultzen diren garaian.

Meteorologi Institutu Nazionalaren eta Babes Zibilaren oharrek eta Bide Zerbitzuak ezarritako prebentzio neurriek, ekaitzaren indarra azkar jaitsi izarekin batera, bidea eman zuten Itzulera Operazioa izenarekin ezagutzen dena normaltasunean gertatzeko: Iparraldeko Autobian eta Belateko Tuneletan trafiko mozketak izan ziren ordu batzuetan eta erretentzioak N-1 errepidean (Etxegarateko portua itxita zegoen), Iruña-Jaka N-240 errepidean eta Iruñeko sarbideetan.

Beste aldetik, Foruzaingoak ondoko oharra eman zuen: Bai irteera operazioan, bai itzulera operazioan bereziki zaindu dira arazo gehien dauden Nafarroako errepideak. Aipatu zen, gainera, Goardia Zibilaren eta Foruzaingoaren 235 agentek parte hartu zutela itzulera operazioan, hain zuzen ere 75 foruzainek eta Goardia Zibileko 158 agentek.

Bi egun beranduago, Foruzaingoko sindikatu batek ondokoa salatu zuen: Trafiko Atalaren eta kidego horretan ardura gorena dutenen gaitasun eza, izan ere zirkulazioa kontrolatu eta zaintzeko agente ia guztiak erromeria, azoka eta kirol lehiaketak zaintzen aritu zirelako, bigarren mailan utzi-

ta Nafarroako errepideetako trafikoa erregulatze-ko lana.

Ildo horretatik, aipatu sindikatuko iturriek baieztatu zuten soilik bi agentek zaindu zituztela Nafarroako errepideak apirilaren 13ko goizean, igandean alegia, Aste Santuko oporraldietako itzulera zaildu zezaketen meteorologi arazoei buruzko berriak aurretik ezagutzen bazituzten ere; arratsaldean, berriz, lau foruzain aritu omen ziren trafikoa kontrolatzeko lanetan.

Azkenik, sindikatuko iturriek ondokoa adierazi zuten: Trafiko Atalean, ohiko gauza bihurtu da errepideetan zainketa lanetan aritzen direnei buruzko datuak puztea, zenbakiak aldatuz eta errealitatearekin bat ez datorren irudi bat emanez.

Aste Santuko trafikoaren zainketa, kontrol eta segurtasun lanak direla-eta, ondoko galderari erantzuteko eskatzen dizut:

1. Zenbat foruzain ditu Foruzaingoak Nafarroako Foru Komunitateko trafikoa zaindu eta segurtasuna bermatzeko?

2. Goardia Zibileko zenbat agente aritzen dira trafikoaren gainean Foruzaingorekin batera dituzten eskumenak gauzatzeko?

3. Trafiko astuna (irteera eta itzulera operazioa) aurreikusten den garaietarako bi kidego horretan dauden agenteen kopurua handitzen al da edo eguraldiaren aurreikuspenek arazoak (ekaitzak edo elurra) izanen direla iragartzen denean? Zein neurritan?

4. Kidegoetako bakoitzeko zenbat agente egon ziren trafiko kontroleko arduretan, Aste Santuko oporraldietako irteera operazioa hasi zenetik itzulera operazioa (martxoaren 31tik apirilaren 14ra bitartean, biak barne) izan arte? Eta, kidego bakoitzetik zenbat agente aritu ziren zerbitzu berezietan (azokak, erromeriak eta kirol lehiaketak) Aste Santuko oporraldietako irteera operazioa hasi zenetik itzulera operazioa izan zen arte (martxoaren 31tik apirilaren 14ra, biak baren)?

5. Edozein kasutan ere, aurreko galderari emandako erantzuteko datuei buruz: uste al du Nafarroako Gobernuak Komunitateko trafikoaren behar bezalako zainketa eta segurtasun lanak egin direla aipatu egunetan?

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Zenbait medikuntza-espezialitateetan itxaron-zerrendek izandako bilakaerari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak zenbait medikuntza-espezialitateetan itxaron-zerrendek izandako bilakaerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko Osasun gaietarako Bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaiten:

Gure taldeak martxoaren 18an jaso zuen urtarilaren 20an medikuntza-espezialitateetan dagoen atzerapenari buruz –zehazki alergologia, oftalmologia eta traumatologia espezialitateetan– egindako galderaren erantzuna.

Oraingoan, 97ko iraileko eta 97ko abenduko zerrendei buruzko alderaketa-datuak eman dira, kontsulta zain dauden gaisoen ehuneko 52,1 egiten duten espezialitate horiei buruz.

Martxoaren 18ko erantzunean emandako datuen arabera, kontsultetarako itxaron-zerrendek behera egin dute nabarmen (alergologian, 3.128tik 2.264ra; oftalmologian, 4.004tik 3.301era; traumatologian, berriz, 3.253tik 3.000ra.

Erantzunean, Osasun Kontseilariak esaten zuen alergologia eta oftalmologia espezialitateetako itxaron zerrendetan gutxieneko historikoak eman direla eta mediku espezialisten zenbatekoa egokia dela.

Hala ere, hain zuzen ere alergologia espezialitatean, badaude gaiso kronikoak, sei hilabetean behin kontsultara joan beharrekoak, zitarik gabe daudenak; horrek, gainera, haien alergia-prozesuak areagotu ditu. Une hauetan, urtebete itxaron behar da alergologia espezialitatean zita hartzeko.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1) Zer nolako bilakaera izan dute alergologia, oftalmologia eta traumatologiako kontsultetarako itxaron-zerrendek martxoaren 30ean.

2) Egin al da ikerlanen bat edo aztertu al dira gaisoen osasun-egoeran laguntza espezializatua erabiltzen dituen ondorioei buruz?

3) Aztertu al du Osasun Departamentuak osasun-zerbitzu publikoak azkartzeko aukera, kanpoko kontsultak arratsalde zabalduz, gaisoen itxaronaldiak murrizteko eta jendeari behar bezala kasu ematekoa, orain gertatzen ari dena ez dadin berriz gerta?

4) Aintzat hartu al da aparteko ekipo medikoak arratsaldetan jartzeko aukera, atzerapen handiena duten espezialitateetako kontsultetako itxaron zerrendak arindu bitartean?

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

“Etxebizitzak eskuratu eta sustatu” kontusailaren kargu jarduketa-lurzati bakoitzean eskuratutako metro karratuei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Etxebizitzak eskuratu eta sustatu” kontusailaren kargu jarduketa-lurzati bakoitzean eskuratutako metro karratuei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Taldeari atxikitako Nueva Izquierda Parlamentari Taldeko bozeramaileak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aurreko martxoaren 24an Lurzorua eta Etxebizitzak Eskuratu eta Sustatu kontusailari buruzko galdera parlamentario baten erantzunaren zati bat jaso nuen; galdera hartan galdetu zen lurzorua eskuratzeko erabilitako zenbatekoa eta jarduketa-lurzati bakoitzean eskuratutako metro karratuen zerrenda, eta aipatutako kontusailaren kargu eskuratutako metro karratuak, guztira.

Alderdi horik erantzun gabe gelditu ziren.

Hori guztia dela eta, ondokoa jakin nahi da:

1.- Etxebizitzak Eskuratu eta Sustatu kontusailaren kargu jarduketa-lurzati bakoitzean eskuratutako metro karratuen zerrenda.

2.- Aipatutako kontusailaren kargu eskuratutako metro karratuak, guztira.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

N-232 errepideko trafikoari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak N-232 errepideko trafikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquiedako Foru Parlamentariak, Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Joan den martxoaren 24an N-232 errepideko trafikoaren batezbesteko intentsitateari buruzko galdera parlamentarioari emaniko erantzuna jaso nuen. Bertan adierazten zen 1997 urteari buruzko hilabeteko datu banakatuak prestatzen ari zirela eta urteko datuak besterik ez zeudela emateko moduan.

Hori dela eta, ondokoa jakin nahi da:

1.- Zein izan den N-232 Errepidearen batezbesteko intentsitatea, 1997 urtean zehar hileroneurtua, guztizko trafikoa adieraziz eta trafiko astuna eta gainontzekoa banakatuz.

2.- Zein kilometro-puntutan ari dira E.B.I. neurritzen eta aldaketarik izan ote den horren inguruan; hala bada zein aldaketa izan diren eta zertarako.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Tuterako UNEDeko zentroari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako UNEDeko zentroari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Taldeari atxikitako Nueva Izquierda Parlamentari Taldeko bozeramaileak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aurreko apirilaren 7an, Tuterako alkateak, Campoy jaunak, komunikabideen aurrean adierazi zuen Nafarroako Gobernuak Lehendakariak baieztatu zuela Tuterako UNED behin betikoz

zentro elkartu bihurtu zela, eta beraz Tuterako UNEDek autonomia zuela (dokumentu idatzia soilik falta zen).

Tuterako Erribera guztiaren aspaldiko eskaera da tokiren bat izatea unibertsitateko ikasketak egiteko, horrela joan-etorririk egin behar ez izateko eta, ahal den neurrian, Erriberan dagoen ikasketa eskaera betetzeko, eta hori Administrazioaren eskutik etor dadila.

Hori guztia dela eta, ondokoa jakin nahi da:

1.- Zeintzuk diren UNEDek Tuteran duen zentroa zentro elkartu izatearen ondorio eta abantailak. Zein epetan gauzatuko den hori, zein titulazio berri abiaraztea pentsatu den, eta zein epetan.

2.- Tuterako UNED gehiago garatu dadin zer aurreikusi du Nafarroako Gobernuak, eta zer beste unibertsitate eskaintza uste du Gobernuak egin daitezkeela Administrazioaren eskutik.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Reina Sofia Ospitaleko mantenimendu zerbitzuko langileen kontratuari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Reina Sofia Ospitaleko mantenimendu zerbitzuko langileen kontratuari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquiedako Foru Parlamentariak, Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaiten.

Heldu den abenduan, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko mantenimendu zerbitzuaren kontratuko epea bukatuko da. Kontratua bukatu zen azken aldian, mantenimendu eginkizunetan ari ziren langileek lanean jarraituko ote zuten jakin ez eta

greba egin zuten: kaltetutako langileak Ospitalean bertan itxi ziren. Modu horretan administrazioak irudi eskasa eman zuen.

Foru Administrazioaren izenean aritu zen solaskideak, Redondo jaunak, agindu zien (Reina Sofia Ospitaleko mantenimendu zerbitzuan lanean jarraitzen duten kontratako langileen esanetan) mantenimendu zerbitzua kontratatzeko hurrengo aldian, langileak subrogatzeko klausula bat sartuko zela. Lizarrako Ospitalean ere antzeko zerbitzu egina zen.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Ea Nafarroako Gobernuak, Osasun Departamentuaren bitartez, kontratuaren mugaeguna baino lehen, Lizarrako Ospitalekoaren antzeko konponbide bat prestatu ote duen.

2. Zenbat denbora aurretik ezagutu behar da zerbitzuaren oraingo esleipen hartzaileak zerbitzuan jarraitu nahi duen ala ez, aurkezten duen eskaintza Administrazioarentzat komenigarriena baldin bada.

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Lizarrako bidezaintzako etxebizitzetarako buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Lizarrako bidezaintzako etxebizitzetarako buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnal andreak, Askotariko Parlamentari Taldean den Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko

184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaiten.

Lizarran, bidezaintzako 60ko hamarkadan eraikitako 37 etxebizitza daude, gaur egun ia guztiak itxita.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zenbat etxebizitza erabiltzen ari dira? Nork erabiltzen ditu? Zer erabilera mota ematen diete?

2. Erabili gabe daudenei dagokienez, zer asmo ditu Nafarroako Gobernuak etorkizunean erabiltzeari buruz?

Iruñean, 1998ko apirilaren 20an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Basoei buruzko Plana

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Basoei buruzko Plana argitaratzeko ofizioan akats bat ohartu da. Aipatu Plana 1998ko apirilaren 16ko 26 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

“Hari buruzko iritzia Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak emango duela” esaten den

lekuan, “Hari buruzko iritzia Lurraldearen Antolamendu, Etxibizitza eta Ingurugiro Batzordeak emango duela” esan behar da.

Iruñean, 1998ko apirilaren 22an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

| | |
|---|--|
| HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » . | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA |
|---|--|